

GUKA

EZKONTZAK

NATURARA ITZULERA

FREEPIK



NIK


hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa

ZUK ERE EGIN GUKA

egin bazkide





JATETXEA



Ametsetako marko historiko batean, Kiruri jatetxean era guztietako ekitaldietarako gastronomia eta espazioa eskaintzen ditugu.

1847tik, ekitaldi bakoitza bezeroen neurrira pertsonalizatzen dugu, kalitatearekin eta tratu familiarrarekin.

**EKITALDI BAKOITZA PERTSONALIZATZEN DUGU,
AMETSETAKO LEKU BATEAN**

Loiolako Inazio Hiribidea 24, Azpeitia • 943-81 56 08

Lau xehetasun, ezkontza bat: tradizio baten sekretuak

Europar tradizioa da ingelesezko atsotitz herrikoi batetik sortutako ohitura. Ezkongai hainbatek soinean janzten ditu zerbait zaharra, berria, utzitakoa eta urdina. Iragana, etorkizuna eta maitasuna batzen ditu ezkontzetan ohikoa den ohiturak.

Tradizioz betetakoa da ezkontzen mundua. Hala adierazten dute Europar aurkitutako ehunka dokumentuk: izan ere, hainbat dira ezkontzetan emaztegaiak zuriz janztearen eta ezkongaei arroza edota loreak botatzearen arrazoiak. Herrialde eta kultura bakoitzean ezkontzari lotutako erritual eta ohitura propioak garatu dituzte, eta horietako asko belaunaldiz belaunaldi egokitu badira ere, ahoz aho transmititu dira.

Horrenbestez, tradizio berberak aldaera ugari izan ditza-ke lekuaren, garaia edo gizarte testuinguruaren arabera. Baina badira gehiegi aldatzen ez diren ohiturak ere. Horietako bat da emakume ezkonberri hainbatek betetzen dutena:

ezkontzaren egunean zerbait zaharra, berria, utzitakoa eta urdina eramatea soinean. Inork ba al daki, ordea, usadio hori nondik iritsitakoa den eta zer esan nahi duen?

Folklore ikertzeaz arduratzen den Folklore Society erakundeak azaldutakoaren arabera, ezkontzen inguruko ohituren parte handiena zorte onarekin, emankortasunarekin, oparotasunarekin edo bikotekidearen babesarekin loturiko sinesmenetatik sortua da. Eta soinean zerbait zaharra, berria, utzitakoa eta urdina eramatearen ohitura ez da salbuespena.

Ohitura hori XIX. mendeko ingelesezko esaera herrikoi bati dago lotuta. Atsotitz horren jatorrizko bertsoiak horrela dio: "*Something old, something new, something*

borrowed, something blue and a silver sixpence in her shoe". Euskarara ekarrita, zera: "Zerbait zaharra, zerbait berria, zerbait utzitakoa, zerbait urdina eta zilarrezko txanpon bat bere zapatan". Txanponaren ideari, oparotasun ekonomikoari lotutakoari, ez diote eutsi, baina gainerakoei bai, usadioak bizirik jarraitzen du gaur egun ere.

Esanahia

Hona hemen ezkontzetan soinean zerbait zaharra, berria, utzitakoa eta urdina eramatearen esanhaiak:

Iraganarekiko lotura

Zerbait zaharrak familiarekiko eta ezkondu aurreko bizitzarekiko lotura sinbolizatzen du. Familiaren erroak, jarraikortasuna eta babesa

adierazten ditu. Aitzinan izan zitekeen herentzian jasotako bitxi bat, paparreko orratz bat edo amaren ala amonaren enkaje bat, eta gaur egun emaztegai askok modu ia ikusezinean janzten dituzte elementu horiek.

Kultura bakoitzean ezkontzari lotutako erritual eta ohitura propioak garatu dituzte

Garai baten hasiera

Etorkizunaren, itxaropenaren eta ezkontzaren ondoren hasten den bizitza berriaren sinboloa da soinean zerbait berria eramatea. Hamarkada luzez, emaztegaiaren soinekoak berak bete zuen funtzio

hori, egun horretarako egina izaten zelako. Gaur egun, aldiz, soinekoaz gaundiko edozein pieza izan daiteke, nola zapatak, hala osagarriak. Izan ere, gero eta gehiago dira amaren edo amonaren soinekoa berrerabiltzen duten emaztegaiak.

Partekatutako zoriontasuna

Tradizioaren arabera, utzitako zerbait horrek gertukoa den eta ezkontuta dagoen pertsona batena izan behar du, hark emaztegaiari zoriona helarazteko emana. Belarritakoak, eskumuturrekoak edota ezkontza beloa izaten dira ohikoenak. Zeremoniaren ondoren, utzitako pieza itzuli egiten zaio jabeari, tradizioari daukan izaera sinbolikoa emanez.

Fideltasuna eta maitasuna

Urdina fideltasunaren, leialtasunaren eta maitasun iraunkorraren kolorea da. Erdi Aroan purutasunarekin ere lotzen zen, eta hortik dator oraindik ere mantetzen duen presentzia. Aukera aniztasun handiena ahalbidetzen duen ohitura da: izan daiteke liga urdin bat, baita soinekoko brodatu urdin txiki bat, zafirozko bitxiak edo erramua lotzeko zinta urdin bat ere.



Emaztegai bat, soineko zuriz jantzita, lore sorta zuri-urdin bat eskuetan duela. UNSPLASH



ARGAZKIAK: FREEPIK ETA UNSPLASH.

Jasangarritasuna eta natura oinarri dituzten ezkontzak, moda-modan

Azken urteotan, ezkontzak antolatzerakoan garrantzitsu bilakatu dira, estetika ez ezik, iraunkortasuna, natura eta pertsonalizazioa. Bikoteek beren balioekin bat egiten duten ekitaldiekin lotzen dute egun handia, eta arreta eskaintzen diote dekorazioari eta esperientziari. 2026ko joerak eta ezkontzako mahai dekorazioaren ezaugarri nagusiak ezagutu nahi?



Azken urteetako joerak erakutsi duenez, ezkontzen den bikoteak estetika politaz haratago begiratzen du egun handia prestatzerakoan.

Ezkontza prestatzerakoan ez dio soilik dekorazioari erreparatzen, bikotearen balioak islatzeak ere garrantzi handia hartu du. Dotoreziak eta detaileek bere horretan jarraitzen dute, baina horiek iraunkortasunarekin, naturarekin eta beneta-

kotasunarekin nahasten dira orain.

Espazioen aukeraketa gauzatzerakoan ere txertatzen dute ikuspegi hori. Izan ere, bikoteek gero eta nahiago dituzte aire zabaleko inguruneak edo ingurumen kontzientzia duten kokalekuak ezkontza egiteko: jardunbide jasangarriak dituzten finkak, lorategiak edota zaharberritutako baserriak edo eraikinak. Natura eszenatokiko funtsezko zati bilakatu da, eta halako espazioak nahi dituzte bikoteek. Leku horiek

ez dute eskatzen muntaia handirik, eta aldi berean, ezkontza paisaiarekin lotura duen ekitaldi intimo eta abegitsu bilakatzen dute.

Espazioak eta koloreak

Loreei eta landareei dagokienez, gehiegikeriak atzean utzi eta hain egituratua ez den estetika dago modan. Sasoiko loreek, bertako barietateek eta lore lehorrek beren lekua dute ezkontzetan, gisa horretan baserriaren xarma eta bizitza baliagarri luzeagoa lortzen di-

relako. Horri esker, lore exotikoak garraiatzeak eta kontserbatzeak eragiten duen ingurumen inpaktuak murriztu egiten da, gainera.

Koloreei dagokienez, tonu neutroak dira joera nagusi, hau da, beixak, zuri hautsiak, oliba berdeak eta okreak, besteak beste. Kolore horiekin giro lasai sortzen da, moda iragankorretatik urrun. Oro har, landa eremuko estiloak, vintage estiloak eta estilo minimalistak daude modan, horiek iraunkortasunarekin modu naturalean datozelako bat. Halaber, agertokiak atontzeko antzinako objektuak eta dekorazio piezak erabiltzen dira, eta elementu berriak erosteko edo ekoizteko beharra murriztu. Gaur egungo ezkontzetako dekorazioak borondate argia du: maitasuna koherentziaz, estiloz eta ardu-raz ospatzea.

Mahaien dekorazioa

Ikuspegi horrek islada zuzena du ezkontzako mahai dekorazioan ere. Azken urteotan, mahaia ez da soilik zerbitzua antolatzeko elementu funtzionala; esperientziaren parte aktibo bihurtu da. 2026rako ezarritako joerak argi erakusten du mahaiaren diseinuak ingurunearekin eta ospakizunaren balioekin bat etorri behar dela, gehiegizko apaingarriak alde batera utzita eta xehetasun zainduak lehenetsita.

Materialei dagokienez, naturalak eta ukimen atsegin dutenak nagusitzen dira: lihoa, zeramika artisaua, egurra edo beira birziklatua. Mahai oihalak testura leunekoak izango dira, askotan kolore neutroetakoak edo lur tonuetakoak, konposizioari sakotasuna emanez. Ontziteriak ez du zertan multzo perfektu batekoa izan behar; kontraste sotilak eta askotariko piezen arteko oreka bilatzea da xedea.

Mahaien gainean jartzen diren loreak aukeratzera, sinpletasunaren alde egin behar da. Altuera handiko konposizio ikusgarriak utzi alde batera, mahaiaren gainean integratzen diren lore antolaketa txikiagoak baitira joera; horrela ez dira oztopatzen gonbidatuen arteko elkarrizketak. Bestalde, sasoiko loreak eta landare berdeak dira nagusi, eta horiek askotan loreontzi xumeetan edo ontzi berrerabiletan aurkeztuko dira.



Mahai tresnek eta osagarriek ere garrantzi berezia dute. Izan ere, kuberteria, edalontziak eta eskuzapiak ez dira elementu neutro hutsak: kolore apur batekin, material bereziekin edo diseinu sinple baina zainduekin, mahaiari nortasuna ematen diote. Xehetasun horiek guztiek, txikiak izan arren, giro koherentea eta atsegina sortzen laguntzen dute.

Azken batean, 2026ko ezkontzetako mahaien dekorazioak ideia berbera berresten du: edertasuna ez da gehiegikeria, aukeraketa arduratsua, material naturalen erabilera eta ospakizunaren izaerarekin bat datorren estetika baizik. Mahaiak maitasuna modu zintzoan eta kontzientean ospatzeko espazio bihurtzen dira, beste behin.


AZPEITIK IRTENDAKO TALDEKO BIDAIAK 2026

	BETETA	NORVEGIA IPARRALDEA Aurora Borealak Martxoa
	AZKEN PLAZAK	VALENTZIA Martxoa
	BETETA	TXINA Apirila
		OVIEDO Ekaina
	BETETA	KROAZIA/ BOSNIA-HERZEGOVINA Ekaina
	AZKEN PLAZAK	BALTIKOAK Uztaila
		GROENLANDIA/ KOPENHAGE Uztaila
		WRC, RALLY ESTONIA Uztaila
	AZKEN PLAZAK	PROVENTZA Iraila
	IRTEERA BERMATUTA	TREKKING POLONIA Abuztua
		TREKKING ATLAS (Marruecos) Abuztua
	IRTEERA BERMATUTA	MADAGASKAR Iraila
		KOLONBIA Urria
		OMAN Abendua
	AZKEN PLAZAK	JORDANIA Abendua

Halcon **BIDAIAK**
AZPEITIA



ARGAZKIAK: UNSPLASH.



Z belaunaldiko gizonen estiloa

Belaunaldi horretan jaiotako gizonek aniztasuna, benetakotasuna, buru osasuna eta lan malgutasuna baloratzen dituzte, eta orain, ezkontzen hasi direnez, beren estiloa definitu dute.

Z belaunaldia 1997. eta 2012. urteen artean jaiotako herritarrek osatzen dute, gutxi gorabehera. Natibo digitalak dira horiek, eta honako ezaugarri hauek dituzte: teknologiaren modu naturalean erabiltzen dute haurtzarotik, helburu bat daukate, gizarte eta ingurumen kontzientzia dute eta informazioaren berehalakotasuna eguneko ogia da haientzat.

Horrez gain, aniztasuna, benetako-
tasuna, buru osasuna eta lan malgu-

tasuna baloratzen dituzte belaunaldi horretan jaiotakoek, eta orain, ezkontzen hasi direnez, beren estiloa definitu dute. Izan ere, sasoi horretan jaiotako gizonak ez dute nahitaez oharkabea pasatu behar beren ezkontzetan, eta horregatik, ez dituzte albo batera uzteko txalekoak, belarritakoak, paparrekoak edo mahuka bikiak.

Estilo zehatza

Hona hemen Z belaunaldiko gizonen ezkontzetan erabiliko dituzten pieza eta osagarri nagusiak:

1. Mahuka bikiak: detaile txikiak atse-

gin dituzte, lehen begiratuan ikusten ez diren horiek. Mahuka bikiak neskarentzat zein mutilarentzat balio dute gaur egun, eta sinpleak diren arren, look guztia alda dezake ukitu vintageak.

2. Gorbatak: gorbata zaharrek aurkitzea zaila den xarma dute: bereziak dira ehunagatik, koloreagatik edo bakoitzak duen istorioagatik. Aitonarena edo azoka zahar batean aurkitutakoa izan daiteke, baina kolorea da gakoa: lur kolorekoa izan dadila.

3. Paparrekoak: ondo aukeratutako paparreko orratz batek izugarrizko eragina izan dezake senargaiaren trajean. Antzinako edo familiako bixi bat izan daiteke edo egun horretarako apropos aukeratutako pieza eksklusiboa.

4. Txaleko estanpatuak: ukitu ingelesa duten txalekoak bereziak dira, jantziari ukitu dibertigarria ematen diotelako. Moda-modako piezak dira, zalantzarik gabe; arreta deitzen duten osagarriak dira, eta aldi berean, dotoreak.

5. Ehun naturalak: naturarekin bat egitea modan dagoen garaiotan, trajeak ere badu protagonismoa. Giroa egokia bada –uharte bat, landa eremua edo aire zabaleko paisaia–, aukera oso ona da lihozko trajea.



**Muniosoro
erretegia**

Eguneko menua, karta
eta ekitaldi bereziak

Oikia 54, Zumaia · 943-14 78 91





Casa
BASUSTA



Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak

Santiago auzoa, 18 | 943-86 26 11 | www.floristeriabasusta.com |   

Herri edo auzo
ezberdinetako
festetan,
ekitaldietan edo
ospakizunetan ere,
egin Guka!



Gukak umeentzako txokoa jartzen du bailarako herrietako egun berezietan. Txoko horietan, gaiaren araberako ekintza desberdinak egiten dira haurrekin, besteak beste, maskarak edo marrazkiak margotu, eskumuturrekoak egin edota haziak landatu.

Zuk ere, Guka txokoaz gozatu nahiz izanez gero, jarri gurekin harremanetan. Horretarako idatzi **komunikazioa@ukt.eus** posta elektronikora edo bidali **Whatsapp** mezua **633 58 55 08** telefono zenbakira.



"Ezkontzakoa izan edo ez, bidaia pertsonalizatzen diogu bezeroari"

Lore Uranga

Zumaiako BQD bidaia agentziako arduraduna

Bidaiak antolatzen urteetako esperientzia du Lore Urangak. Azken urteetan moda-modan jarri diren ezkontzei lotutako bidaien gaineko xehetasunak azaldu ditu Zumaiako BQD agentziako arduradunak.



Lore Uranga eta Joseba Berzosa, Zumaiako BQD bidaia agentzian.

Zeintzuk izango dira 2026ko eztei bidaietako helmuga nagusiak?

Iaz bezala, Japonia izango da herrialde izarra. Japoniara bidaia izan daiteke nagusia edota Japonia Maldivekin edo Balirekin konbinatutakoa. Afrika eta hango herrialdeetan egin daitezkeen safariak ere modan daude: Kenya edo Tanzania dira adibideetako bi, eta horiei edozein hondartzadun leku gehitutako bidaiak ere bai. Kontinente horretan, poliki bada ere, gero eta bikote gehiagok aukeratzen dute Hego Afrika. Aurten modan dauden beste bi leku dira Vietnam eta Jordania.

Zer faktorek eragiten dute bikoteek bidaiatzeko leku bat aukeratzeko?

Ezkontzen diren gariak asko eragiten du horretan. Negu inguruan ezkontzen direnek Argentina edota Txile aukeratzen dute bidaia egiteko, leku horietan uda izaten delako. Hemen uda denean, berriz, Kanada hautatzen dute askok, eta Mexiko ere bai. Hizkuntzak ere badu eragina; ez badute ingelesa menperatzen, bikoteek nahiago izaten dute leku latinoetara joatea. Beste bikote batzuek egun gutxi izaten dituzte bidaiatzeko, eta beste batzuek aurrekontu txikia. Halakoetan Grezia hautatzen dute, aukera asko

eta askotarikoak eskaintzen dituelako.

Hautaketan eragiten al du tokian tokiko momentuko egoera politikoak?

Erabat. Orain arte, bikote askok erabakitzen zuten ezkon bidaiari AEBetara joatea, baina azken hilabeteetan asko gutxitu da eskaera hori. Aurrera begira ere, ez da espero helmuga horren eskaerak gora egingo duenik.

Askok aldatu al dira ezkon bidaien joerak azken urteetan?

Eztei bidaia nora egin hautatzea oso gauza berezia eta pertsonala da; ez da moda kontua. Guk izandako esperientziaren arabera, esan dezakegu bikote askok familiakoek edo lagunak egindako bidaiak egin nahi izaten dizutela. Izan ere, askotan haien bidaietako argazkiak edota bideoak ikusi izan dituzte. Era berean, ordea, egia da Japonia azken urteetan modan dagoela, eta hori izan daiteke COVID-19aren pandemiaren ondoren turismoarentzat ireki zuten azken herrialdea izan zelako. Baliteke horrek jendeari lekua ezagutzeko presioa edo gogoia sortu izana.

Bikote bakoitzak bidaia propioa egin nahi izaten du, beraz.

Guztiz. Bakoitzak ezkon bidaia egiteko bere modua du: bikote batek *motxilero* gisa egin nahiko du bidaia, eta beste batek, berriz, hotel oso-oso onean

hartu nahiko du ostatu, bada-kielako gainerakoan inoiz ez duela horrelako hotelik ezagutuko. Garbi daukagu zein den gure zeregina: ezkontzakoa izan edo ez, bezeroari bidaia pertsonalizatzen diogu beti. Bikote denak dira desberdinak, eta bakoitza nolakoa den eta zer gustatzen zaion jakin nahi izaten dugu, harentzat propio sortutako bidaia osatzeko. BQD bidaia agentzian bezeroa ezagutzen saiatzen gara, bakoitzari behar edo nahi duena eskaintzeko.

Alderik nabaritzen al da bikote gazteen eta ez hain gazteen gustuen artean?

Ikusten da aldea, bai, baina pandemiaren ondoren asko aldatu da bidaiatzeko modua. Lehen gazteek ez zuten bidaia agentziarik bisitatzen, eta orain, itzultzen hasi dira. Aldiz, 40 eta 50 urte bitarteko herriarrek gauzak *online* ere egin daitezkeela deskubritu zuten, eta orain, bidaiak beraiek antolatu nahi izaten dituzte Internet bidez. Dena den, Internet bidez erreserbatutako bidaien kasuan ere eskaintzen dugu laguntza; edozein arazo izan dutela, irtenbidea ematen deigu. Nahi dugu horretan bidelagun izatea, konfiantzazko lekua garelako. Hain zuzen, bidaia osoak antolatzeaz gain, hegaldien erreserbak edo herrialde batzuetara sartzeko beharrez-

koak diren bisak ere egiten ditugu.

Egia al da eztei bidaien prezioek gora egin dutela?

Oso zabaldua dagoen ustea da hori, gezurra guztiz. Ezkontzarako soinekoa garestiagoa izaten al da? Berezia da, eta horregatik izaten da garestiagoa, eta gauza bera gertatzen da bidaiariek. Eztei bidaiak gauza bereziak eta bitxiak –safariak, hotel onak, gida pertsonalizatuak...– egiteko baliatzen dituzte bikoteek, eta horiek beren prezioa dute. Halere, ez da egia ezkon bidaiak bestelakoak baino garestiagoak direla.

Etorkizunera begira, zein izango dira ezkon bidaietako joerak?

Slow travel deitzen zaion hori badator, hau da, lasai eta poliki bidaiatzeko joera. Lehen bidaiak baliatzen ziren ahal zen guztia ikusi ahal izateko; orain, joera aldatzen hasi da. Orain bidaia egingo duzun herrialdean ikusi nahi duzun kapritxo horri eskaintzen zaio denbora; bidaiariek, ahal dela, egun osoa hartzen dute nahi duten hori egiteko. Gure aholkuak ere norabide horretan joaten dira, bidaia pertsonalizatzeko modua delako.

Nolakoa litzateke zure ametsetako bidaia?

Momentu honetan, Afrika-ra bidaiatuko nuke; zehazki, Kenyara, Tanzaniara eta

Maldivetara. Kenyan Masai Mara parke naturala bisitatu nuke hango animalia aniztasunagatik eta Masai tribua ezagutzeko; Tanzaniako ekosistema oso bestelakoa da, eta Ngorongoro sumendiaren kraterra airetik ikusiko nuke; eta gero atsedean hartuko nuke Maldivak uharteetako hondartzetan.



bqd bidaiak

Txomin Agirre 1
ZUMAIÁ

943-84 53 96

zumaia@bqdbidaiak.com

Gonbidatu perfektu izateko dekalogo

Urtero gisan, aurten ere zehaztu dituzte ezkontzetako gonbidatuak inspiratzeko baliagarri izan daitezkeen estiloak eta joerak. Koloreen, osagarrien eta soinekoen arteko oreka da sofistikazio modernoa eta ukitu berezia lortzeko gakoa.

Urte berria hastearekin batera iritsi dira arropa eta diseinu bilduma berriak, eta horiek dagoneko hasi dira bidea egiten, 2026ko denboraldia definituko duten joeren zertzeladak eskaintzen.

Neguko barealdiaren ondoren, aisialdiari lotutako planak biderkatu egiten dira; as-teburuak ekitaldiz betetzen hasten dira, eta ezkontzen garaia martxan jartzen da. Aurten egingo duten ezkontzaren batera –edo batzuetara– gonbidatu baldin bazaituzte, hona hemen prestaketan laguntzeko baliagarri izan daitezkeen aholku batzuk. Dotoreziaren eta estilo modernoaren arteko oreka aurkitzea da gakoa.

Arrosa

Arrosa izango da 2026ko modako kolorea, leuntasun erromantikoa eta sofistikazio minimalista uztartzen dituelako. Koloreak berak duen moldakortasuna handia da, eta horren eraginez, ondo egokitzen zaie azal tonu gutxiei.

Eskularruak

Eskularru luzeak erabiltzea joera izango da aurten. Indar handiz itzuli dira osagarri horiek, *vintage* ukitua ematen eta gonbidatuaren itxura berehala hobetzen dutelako. Eskularru luzeak ezin hobeak dira soineko sinple bat jantzi sofistikatu eta gogoangarri bihurtzeko.

Soineko luzeak

Soineko luzeak mugimendua eta erosotasuna eskaintzen di-

tuzte. Lepoko adierazgarri batekin konbina daitezke, gisa horretan arreta puntu sinple bat sortuz.

Distiradun poltsak

Lentejuelazko poltsa txiki batekin berehala eraldatzen du edozein gonbidatuaren itxura. Detalle distiratsu horrek xarma ematen dio jantziari, eta pieza sinplekin edo sofistikatuekin konbinatzeko aproposa da.

Soineko luzeak mugimendua eta erosotasuna eskaintzen dituzte

Loreek, ehunek eta bolumenek osagarri nagusi bihurtzen dituzte oinetakoak

Buruko zapiak

Buruko zapiak indarrez ari dira itzultzen eta nortasun handiko osagarri izar bihurtzen. Turbante gisa jantzita, ukitu sofistikatua eta modernoa ematen dio gonbidatuari. Izan ere, turban-teak aurpegia nabarmentzen du.

Zulodun soinekoak

Zulodun edo mozketak desberdindun soinekoek arrakasta izaten jarraitzen dute, sensualitatearen eta diseinuaren nahasketa perfektuari esker. Zulo edo zabaldua estrategikoek gorputzaren formarekin jolasten dute, efektu modernoa sortuz. Halakoak aproposak

dira itxura deigarri baina dotore bila dabilzanentzat.

Txapel kortsarioak

Txapel kortsario gisa ezagutzen diren kaperak osagarri izar ari dira bilakatzen azken hilabeteetan. Horien silueta bereziak ukitu ausarta ematen dio edozein look-i, dotorezia galdu gabe.

Trajeak

Trajearen kontzeptuari buelta ematen hasiak dira, hau da, tradizionalki izan duen formalitatearekin edo seriotasunarekin hausten. Estanpatu ausartek, ehundurek, xehetasunek, askotariko ertzek, kolore kontrasteek edo ez ohiko mozketek estilo pertsonala eskaintzen dute.

Globo gonak

Globo formadun gonak produktu preziatu bilakatu dira. Horien forma bilduak mugimendua eta sofistikazioa eskaintzen dute, itxura dotorea emanez. Aukera ezin hobeak dira nabarmendu nahi dutenentzat, beti ere, feminitatea, modernitatea eta dotorezia uztartzen dituen gona bat aukeratuz gero.

Loreak oinetakoetan

Oinetakoak dira gonbidatuen tzako detaille delikatuak. Lore apaingarriak, izurdun ehunek eta bolumenek osagarri nagusi bihurtzen dituzte oinetakoak. Arreta detaille txikiek pizten dietenentzat egokiak dira horrelako oinetakoak, ukitu erromantikoa, sofistikatua eta modernoa ematen baitiete look gutxiei.





EZKONTZAK | HAURREN ERRETRATUA |
BIKOTEAREN ERRETRATUA |
JAUNARTZEAK | DRONEAREKIN IRUDIAK

Olatz plaza, 5 behea | Azpeitia
943-81 51 42 | estudio@fotoangel.es

  www.fotoangel.es



**Loratzen diren
une bereziak.**

Landareez inguratu!